

Mikel Irizar

## Independentzia

**U**rtero bezala, bainuetxean eman dut puzko astea Katalunia aldean, gorputza beratzen eta burua freskatzzen. Hidroterapiarekin tartekatuta, *Avui* egunkaria eta Imanol Murua Uriaren kronika Loiolakoaz izan ditut irakurgai iradokitzaileak. Eta etxera itzultitakoan artikulu honen eskaria nuen e-postan. Abagune primerakoa pentsatutakoa antolatzeko.



DANI BLANCO

Eta bai, krisi orokorrari aurre egiteko espainiar nazionalismoa sendotzea hartu dute eginkizun, baina horrekin ari dira aldi berean besteon independentzia zaletasuna hauspotzen, gero eta zailago zaigulako Espainia horretan jarraitzea.

**INDEPENDENTZIA?** Irudipena daukat oso aberri zale ez garenak ere gero eta gehiago gaudela Espainiatik bereizteko prest. Honetarako Europa segurtasun sare moduko bat da, bakarrik geratzeko beldurrarentzat antidotoa. Uste dut euskal herritar asko eta asko sentituko ginatkeela eroso Europarekin harreman zuzenean, Espainia atzean utzita. Bitxia da nolako pozez saltzen duen Idoia Mendia bozemaileak euskal emaitza ekonomikoak espainolak baino askoz hobeak direneko informazioa.

**KATALUNIA.** Hauteskundeen bezperatan dauden arren, giro etsia sumatu dut iritzi artikuluetan. Estatut kimatua Epaitegi Konstituzionaletik are kimatuagoa irtengo dela irentsita eta alderdi politikoez horren aurrean egin dezaketenaekin ez oso itxaropentsu. Eta hala ere, gero eta argiago aipatzen da ideia bat: “Espainian egoteko ahalgina egin dugu eta ez gaituzte duintasunez egoten utzi nahi; alde egiteko ordua iritsi da”.

**LOIOLA (I).** Liburu bikaina idatzi du Imanolek, eta lan bikaina egin zuten Loiolako negoziatzaileek. Harrituta gelditu naiz adostu zuten zirriborroaren kalitate politikoaz. Eta neurri berean izutu nau zirriborroa bere horretan onartu ez zutenen itsutasunak. Ziur nago gutxietsitakoaren erdiarekin oso pozik leudekeela gaur.

Edonola ere, Loiolako porrotak beste fase bat ireki du eta euskal mapa politikoa mugitzen ari da. EAEko agintean unionistak daude eta Katalunian bezala hemen ere independentziaz gero eta garbiago hitz egiten da.

**ESPAINIAREN GAINBEHERA.** Gürtel eta Pretoria kakaleku, Aznar eta Rouco lider, Belen Esteban eta Julian Muñoz idolo, Garzon eta Varela lehian, Zapatero eta Salgado krisiarekin itota... Aspaldian ez zuen Espainiak hain aurpegi kutre eta kasposorik erakutsi munduaren aurrean. Oso nazionalista behar du hortik harrotasuna ateratzeko.

◀

Paradoxa dirudi, baina arrazionalki independentziaren aukera indartu bada, eguneroko bizimoduan gero eta asimilatua go gaudela kultura nagusietara. Espainia eta Frantzia hartzen ditugu ia guztirako erreferentzia, pentsamolde autonomoa garatzeko lanari uko eginda

▶

**ASIMILAZIOA.** Baina kontuz kanpaibueltekin. Paradoxa dirudi, baina arrazionalki independentziaren aukera indartu bada, eguneroko bizimoduan gero eta asimilatua go gaudela kultura nagusietara. Espainia eta Frantzia hartzen ditugu ia guztirako erreferentzia, pentsamolde autonomoa garatzeko lanari uko eginda. Eta bitartean badaude akats larriak: transmisioan etenak, diskurtsoan hankasartzeak, jarreretan okerrak, antolaketan hutsuneak... Lortu dugu askorentzat ez izatea bat ere erakargarri euskaraz egitea edo euskal herritar agertzea.

**LOIOLA (II).** Haatik, badago itxaropenerako motiborik. Loiolan posible izan zenak erakusten du bidea. Ez dut uste prozesua berriro errepikatuko denik, beste bat izango da gertakarien hurrenkera. Baina Batasuna ohian gertatu den lurrikarak bere ondorio guztiak izaten baditu, aukera izango da gure akatsak zuzentzeko eta unionistenak baliatzeko independentziara bidean. Eta bide luze horretan hauteskundeak garrantzitsuak dira, baina aurkariari gaina hartzeko lan asko eta ona egin behar da. Egunero eta nonahi. ■